

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Kobratzea landa eta hiri ondasun higiezin gaineko eta ezaugarri berezietako ondasun higiezin gaineko 2019ko zerga

Nik, Unai Gutierrez Urkizak, Zuiako Udaleko (Arabako Lurralde Historikoa) alkate lehendakariak,

Jakin arazten dut: 2019ko ekainaren 1a eta uztailaren 31 bitarteko egun balioudunetan (biak barne), larunbatetan izan ezik, ordaintzeko moduan egongo direla, borondatezko epean, landa eta hiri ondasun higiezin gaineko eta ezaugarri berezietako ondasun higiezin gaineko 2019ko zergaren ordainagiriak.

Zerga horren eraginpekoek, ordainketa inongo banketxetan helbideratuta ez badute, Kutxabanken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte zerga zorrak, aurkeztuz etxean jasoko duten ordainagiri abisua; abisua jaso ezean, Zuiako udal idazkaritzan eskatu beharko da.

Zergapekoei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte prozedurari emango zaio hasiera ordaindu gabeko kuotak kobratzeko, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak eta Dirubilketa Arautegi Orokorrak, eta dagokion errekaruarekin (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2019ko ekainaren 7a

Alkate lehendakaria
UNAI GUTIERREZ URKIZA